

ARRASATEKO BIZTANLERIAK ETXEBIZITZA EDUKITZEKO DUEN
ESKUBIDEA DEFENDATZEKO MOZIOA

EAJ-PNV/ PSEE-EE / ETA ELKARREKIN ARRASATE-PODEMOS/EZKER
ANITZA-IU/EQUO BERDEAK AURKEZTUTA

AZALPENA

Etxebizitza oinarrizko eta funtsezko giza eskubide gisa onartutako eskubidea da nazioarte mailan, eta etxebizitza eskuratzeko dagoen arazo larriaren aurrean, erakundeek ez lukete jarrera pasiborik hartu behar.

Eustatek emandako datuen arabera, 2020ko ekainean, Euskadin 120.532 pertsona zeuden etxebizitza eskuratzeko premian emantzipazio-egoeragatik.

Etxebizitza eskuratzeko prezioari dagokionez, ikusten da etxebizitza horien hileko batez besteko errenta 1.040,67 eurokoa dela, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren arabera, eta 18-29 urteko gazteen hileko batez besteko soldata garbia 1.164 eurokoa dela, Gazteen Euskal Behatokiaren 2019ko txostenaren arabera.

Salerosketa-merkatuari buruz Eusko Jaurlaritzaren Higiezinaren Eskaintzaren azken txostenaren arabera (2020ko laugarren hiruhilekoa), igo egin da erabilitako etxebizitzaren prezioa EAEn, eta erabilitako etxebizitza librearen metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa 2.738,8 eurokoa da. Etxebizitza berri libreaki dagokionez, metro koadroko prezioa 3.611,5 eurokoa da. Zifra hori %5,4 handitu da 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Prezioz gain, kontuan hartu behar da biztanleriaren zati batek zailtasunak dituela gaur egun hipoteka-kreditu bat eskuratzeko, lan-baldintza egonkorrik ez duelako.

Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkestaren datuen arabera, 2013tik, alokairuaren prezioak % 22 hazi dira EAEn, eta Alokairuaren Merkatuari buruzko Estatistikaren arabera, %10, 2016tik. Igoera horren ondorioz, alokairuan bizi diren familien %65ek errenta erabilgarriaren %30 baino gehiago erabili behar izan dute alokairua ordaintzeko.

Estatuko Gobernuak orain arte alokairu-errentei buruz hartu dituen premiazko neurriak gorabehera, krisi sanitarioak kalteberatasun sozioekonomiko handieneko egoeran dauden errentariengan duen eragina arintzekoak, egiturazko erreformak egin behar dira

etxebizitza eskuratzeko erregulazioaren gaian, premia biziko ondasuntzat jotzeko, inbertsiotzat jo beharrean. Estatuko lege berri baten bidez, etxebizitza-merkatu tenkatua duten eremuak zeintzuk diren aitortu ahal izango dira, hau da, azken urteotan alokairuen prezioek gorakada handia izan duten eremuak, Euskadiko hirietan hiri-errentamenduaren esparruan gertatzen den bezala.

Euskadiri dagokionez, lege berri batek aurrerapen handia eragin dezake Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen aplikazioan eta garapenean. Etxebizitza izateko eskubidea defendatzen duten gizarte-plataformek etengabe aldarrikatzen dute lege hori, kontuan izanik alokairu-prezio altuenak dituen hirugarren autonomia-erkidegoa dela Euskadi.

Toki-oinarriak arautzen dituen legeriak toki-erakundeei esleitutako mekanismorik ez dagoenez, eta beharrezkoa den toki-autonomia baliatuz, erakunde-maila guztien arteko lankidetzak beharrezkoa da, hain konplexua den arazo bati irtenbidea emateko: etxebizitza eskuratzeko.

Horrela, Arrasate Udalak hurrengo proposatzen du:

1. .- Espainiako Gobernuari eskatzea etxebizitzari buruzko estatuko lege bat onar dezala, autonomia-erkidegoen eta udalerrien eskumenen esparruan garatu ahal izateko, etxebizitzaren funtzio soziala blindatzeko eta Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan jasotako etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea benetan betetzen dela eta errespetatzen dela ziurtatzeko, oinarritzko hornidurak barne.
2. .- Eusko Jaurlaritzari alokairu sozial eta eskuragarriko etxebizitzaren parke publikoa handitzeko eskatzea.
3. Arrasateko udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea garatzen jarraitzeko eta alokairua sustatzeko politikak bultzatzeko, familien errealitate ekonomikora egokitu daitezen bultzatuz.
4. Arrasateko udalak arlo horretan eskumena duten erakundeekin elkarlanean eta koordinatuta, gazteentzat eta errenta ahulenak dituzten pertsonentzat alokairu soziala bultzatuko duten politikak garatzeko eta lan egiteko konpromisoa hartzen du.
5. Arrasateko Udalak Foru Aldundiei eskatzen die, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren barruan, etxebizitzaren fiskalitatearen arloan neurriak hartzeko formulak azter eta proposa ditzatela, etxebizitza alokatzen duten pertsonen kerkariak egokitu eta haztatzeko, beren errenta-mailaren arabera eta etxebizitza alokatzearen bidez lortutako errentak progresibotasunprintzipioan jartzea.

La población de Arrasate/Mondragón dispone de una Moción para la defensa del derecho a la vivienda

Explicación

La vivienda es un derecho reconocido como un derecho humano básico y fundamental a nivel internacional, y ante el grave problema de acceso a la vivienda, las instituciones no deberían adoptar actitudes pasivas.

Según datos del Eustat, en junio de 2020, en Euskadi había 120.532 personas con necesidad de acceso a la vivienda por situación de emancipación.

En cuanto al precio de acceso, se observa que la renta media mensual de estas viviendas es de 1.040,67 euros, según el Observatorio Vasco de la Vivienda, y que el salario medio neto mensual de la juventud de 18 a 29 años es de 1.164 euros, según el informe del Observatorio Vasco de la Juventud de 2019.

Según el último informe sobre el mercado de compraventa de la Oferta Inmobiliaria del Gobierno Vasco (cuarto trimestre de 2020), el precio de la vivienda usada en la CAE ha aumentado, situándose el precio medio del metro cuadrado útil de la vivienda usada libre en 2.738,8 euros. En cuanto a la vivienda nueva libre, el precio por metro cuadrado es de 3.611,5 euros. Esta cifra se incrementa un 5,4% con respecto al cuarto trimestre de 2019.

Además del precio, hay que tener en cuenta que una parte de la población tiene actualmente dificultades para acceder a un crédito hipotecario por su falta de condiciones laborales estables.

Según los datos de la Encuesta sobre Oferta Inmobiliaria, desde 2013, los precios del alquiler han crecido un 22% en la CAE y según la Estadística sobre el Mercado de Alquiler, 0/010 desde 2016. Como consecuencia de este incremento, el 65% de los hogares que viven de alquiler han tenido que destinar más del 30% de la renta disponible al pago del alquiler.

A pesar de las medidas urgentes que hasta ahora ha adoptado el Gobierno del Estado sobre las rentas de alquiler, para paliar el impacto de la crisis sanitaria en los arrendatarios en situación de mayor vulnerabilidad socioeconómica, es necesario acometer reformas estructurales en el tema de la regulación del acceso a la vivienda para considerarlo bien de primera necesidad en lugar de inversión. Una nueva ley estatal permitirá reconocer cuáles son las zonas con un mercado de vivienda tensado, es decir,

aquellas en las que los precios de los alquileres han experimentado un fuerte aumento en los últimos años, como ocurre en el ámbito del arrendamiento urbano en las ciudades de Euskadi.

Respecto a Euskadi, una nueva ley puede suponer un avance importante en la aplicación y desarrollo de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda. Las plataformas sociales que defienden el derecho a la vivienda reivindican constantemente esta ley, teniendo en cuenta que Euskadi es la tercera comunidad autónoma con los precios de alquiler más altos.

La falta de mecanismos atribuidos a las entidades locales por la legislación reguladora de las bases locales, y el ejercicio de la necesaria autonomía local, hace necesaria la colaboración entre todos los niveles institucionales para dar solución a un problema tan complejo como es el acceso a la vivienda.

Así, el Ayuntamiento de Arrasate propone:

1. - Instar al Gobierno de España a aprobar una ley estatal de vivienda que permita su desarrollo en el marco de las competencias de las comunidades autónomas y de los municipios, con el fin de blindar la función social de la vivienda y asegurar el cumplimiento efectivo y el respeto del derecho a una vivienda digna y adecuada recogido en el artículo 47 de la Constitución Española, incluidas las dotaciones básicas.
- 2.- Solicitar al Gobierno Vasco la ampliación del parque público de viviendas en alquiler social y asequible.
3. El ayuntamiento de Mondragón insta al Gobierno Vasco a continuar desarrollando la Ley 3/2015 de 18 de Junio, de Vivienda e impulsar políticas de fomento del alquiler, favoreciendo que los mismos se ajusten a la realidad económica de las familias.
4. El Ayuntamiento de Mondragón, en colaboración y coordinación con las instituciones competentes en la materia, se compromete a desarrollar y trabajar políticas que favorezcan el alquiler social para los jóvenes y las personas con rentas más desfavorecidas.
5. El Ayuntamiento de Mondragón solicita a las Diputaciones Forales que, en coordinación con el Gobierno Vasco, en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, estudien y propongan fórmulas para la adopción de medidas en materia de fiscalidad de la vivienda, con el fin de adecuar y ponderar las deducciones de las personas que alquilan la vivienda, en función de su nivel de renta y la puesta en principio de progresividad de las rentas obtenidas mediante el alquiler de la vivienda.